

GAZTE LONJEI BURUZKO ORDENANTZAREN **ZIRRIBORROA**

Sarrera

Gazteriaren Euskal Behatokiak duela gutxi egindako ikerketa baten arabera, Arabako gazteen % 16 inguruk gazte-lonja bat du. Datu hori Gasteiza ekartzen badugu, horrek esan nahiko luke 15 eta 29 urte bitarteko 6.000 gaztek lonja bat duela gaur egun. Demagun lonja bakoitzak batez beste 15 bazkide dituela; 400 lonjako kopurua emango liguke horrek.

Arauk zuei zuzenduta doaz, une honetan lonja bat duzuen edo etorkizunean izateko asmoa duzuen milaka gazte horiei.

Lonjek aukera ematen dizuete, autogestiotik, bizitza heldurako beharko dituzuen erremintak maneiatzeko eta, aldi berean, aukera izan daiteke hiriko dinamika sozial eta kulturala astintzeko.

Lonjak ugariak diren arren, eta sarritan komunikabideetan arazo sozialekin erlazionatu ohi badira ere, egia esanda gaur gaurkoz ez dago esaterik gazte lonjak arazo sozial edo bizikidetzako arazo aipagarri bat direnik.

Eta hala ere, egia da hain hedatua dagoen fenomenoaren izanik, gizarteak oro, zuek gazteok barne, ezer gutxi dakigula lokal horien errealitateari buruz: zein egoeratan dauden, behar diren segurtasun neurriak betetzen ote dituzten, zein den beren edukiera, nolabaiteko aseguru-estaldurarik ote duten, etab.

Horregatik, gero eta gehiago dira espazio horientzako araudi bat eskatzen dutenak, baita zuen artean ere, erreferentziazko eta segurtasun juridikoko marko minimo bat eduki ahal izateko. Asko dira lonja horiek arautzeko ordenantza bat onartu duten udalak, bai gure autonomia erkidegoan, bai hemendik kanpo ere.

Lonjei buruzko araudi batek hainbat beharrian ase ditzake:

- Gazteoi, lonja bat modu legalean izateko aukera ematen dizue. Horrek esan nahi du betebeharrak batzuek aparte, beste hainbeste eskubide izango dituzuela (edo gehiago): bizilagunen aurrean, administrazioaren edo jabearen aurrean. Lonja legalizatu gabe badago, egoera ahulean zaudete; edozein pertsonak salatzen bazaituzte automatikoki kaleratuak

izan zaitezke. Araudi honek, aldiz, aukera ematen dizue zuen lonjan lasaitasunez egoteko. Adibidez, zuen lokalean lapurreta edo beste edonolako arazoren bat gertatuz gero, jada ez duzue zalantzarik izango poliziari deitzeko, kaleratuak izatearen beldurrez. Gainera, lonja bat irekitzeko asmoa duzuenean, Udalaren Gazte-lonjen Erregistroa kontsultatu ahal izango duzue eta, lokalen bat libre badago, hura alokatu ahal izango duzue, araudia betetzen duela jakinik.

- Zuen bizilagunek, berriz, lonjak gutxieneko segurtasun eta osasungarritasun baldintzak betetzen dituela jakingo dute eta, bestetik, bermaturik izango dute lonja horretan daudenez zenbait arau bete behar dituztela, eraikin horretako beste edozein bizilagunek bete behar dituenen parekoak.

- Zuen gurasoei ere balio die jakiteko lonjak gutxieneko segurtasun eta osasungarritasun baldintzak betetzen dituela, baina, horrez gainera, jakiteko zuen bizitza heldurako saiakera hori helduok ditugun antzeko baldintzetan egingo dela, hau da, arau eta prozedura formalak errespetatuz.

- Lokalen jabeek, berriz, arauok segurtasun juridikoko marko bat eskaintzen diete. Hemendik aurrera, beren alokairu kontratuetan jarduera hau aipatu ahal izango dute, eta ez egiazkoak ez diren bestelako jarduerak. Gainera, lokala araudi honetan ezartzen diren baldintza errazetara moldatzen badute, alokatzerakoan administrazioak arazorik ez diela jarriko ziurtatu ahal izango dute. Bestetik, administrazioak jarduera hau ezagutu eta kontrolatuko duenez, errazago izan beharko lukete aseguru-polizak kontratatzea, jarduera horretara egokituak.

- Udalak, azkenik, arauok onartzean oinarri juridiko sendoagoa ematen die bere eskumenei, hau da, jardueren inspezio eta kontrol arloan dituen eskumenei.

Gainontzean, "joko-arau" hauek **ezinbesteko** premisa batetik abiatu dira: arauok denontzat argiak eta ulerterrazak izan behar zuten, baina batez ere zuentzat, gazteentzat, bereziki zuei zuzenduta baitaude. Saiatu gara testu zuzena eta sinplea egiten, baita irakurtzeko atsegina ere, baina bistatik galdu gabe beharrezkoa den zorrotasun juridikoa. Izan ere, itxura informala duten arren, arauok bat datoz ordenamendu juridikoarekin.

Tira, eta sermoi txiki honen ondoren, gatozen benetan axola duenera:

GAZTE-LONJAK: JOKOAREN ARAUAK

1. artikulua.- Misioa.

Helburua da zuk eta zure lagunek kudeatutako espazio batez gozatu ahal izatea, bertan biltzeko, aisialdirako, dibertitzeko eta sozializatzeko, eta hori dena egitea lasaitasunez, jakinik espazio horrek gutxieneko segurtasun eta higiene baldintzak betetzen dituela, eta, aldi berean, auzokoekin dituzuen harremanak ahalik eta hoberenak izan daitezen saiatuz, ahalik eta eragozpen gutxien eraginez.

2. artikulua.- Oinarrizko instrukzioak.

1.- Jokoan jarraitu ahal izateko, zuen taldeak gutxienez **"bizitza"** bat izan beharko du beti. "Bizitza" guztiak galtzen badituzue, akabo jokoa: lonja itxi egingo dizuete; akaso, gainera, isuna jarriko dizuete, eta utzi egin beharko duzue lokala.

"Bizitzak" galtzen dira "kirtenkeriak" egiten badituzue, hau da, aurrerago azalduko ditugun joko-arauak hausten badituzue.

Printzipioz, inongo "kirtenkeriak" ez dakar isun ekonomikorik, "kirtenkeria handia" izan ezik.

2.- Horregatik, zuen lehen helburua izan behar da lonja erregistratzea eta ahalik eta bizitza-kopururik handiena biltzea. Honela ziurtatuko duzue dena zuzen dagoela, udalak ezingo zaituzte zuen lokaletik bota, eta ezingo dizue diruzko isunik jarri.

3. artikulua.- Zer da "gazte-lonja" bat?

"Gazte-lonja" da lokal pribatu bat, normalean beheko solairuan kokatua egoten dena, eta bertan 15 eta 30 urte bitarteko gazte talde bat bere aisialdian elkartzen da, nahiz eta talde horrek "elkartea" propio osatu ez. Sarrera mugatua duen lokal bat da; alegia, edozeinek ezin du sartu, zuen lagunek bakarrik, eta irabazi asmorik gabeko jarduerak baino ezin dira bertan egin.

Joko-arau hauek aplikatzen zaizkie definizio horretan sartzen diren "gazte-lonja" guztiei.

4. artikulua.- Lonja martxan jartzeko: "aurretizko komunikazioa".

Zuen lonjaz gozaten hasteko egin behar duzuen lehena da Gasteizko Udalari jakinaraztea gazte-lonja irekitzeko asmoa duzuela. Horretarako,

"aurretiatzko komunikazioa" deritzona aurkeztu beharko diozue, idazki bat datu gutxi batzuekin, eta hori aurkeztuta, udalak "Gazte-lonjen Udal Erregistroan" sartuko zaituzte.

Zuen taldea eta zuen solaskide izango direnak identifikatzeko, aurretiatzko komunikazio hori gutxienez zuen arteko hiru lagunek izenpetu beharko dute, 15 urtetik gorakoak denak.

"Aurretiatzko komunikazioaren" eredia eskura duzue joko-arau hauen eranskinean.

Aurretiatzko komunikazio hori aurkezten duzuen unetik posible izango duzue zuen lonjan elkartzen hastea, eta gainera **2 bizitza** izango dituzue. **Ongi etorri jokora!**

5. artikulua.- Udalaren ikuskapena.

1.- Aurretiatzko komunikazioa aurkeztu eta gero, udalaren ordezkari batek dei egin eta hitzordu bat eskatuko dizue, lokala ikuskatzeko. Helburua da ikustea ea lokalak joko-arau hauetan ezartzen diren gutxieneko segurtasun eta osasungarritasun baldintzak betetzen dituen. Horrela, lasaiago egon ahal izango duzue, jakinik zuen lokala ez dela "sagu-zulo" bat, ez dagoela lur-jotze arriskurik, edota sute, uholde edo bestelako ezbeharren mehatxurik, eta baldintza duin batzuetan elkartu ahal izango zaretela.

Ikuskapen horretatik, hainbat ondorio erator daitezke:

- a) Gerta daiteke lokalak gutxieneko segurtasun eta osasungarritasun baldintzak betetzea. Udalak oniritzia emango du eta beste 3 bizitza batuko dituzuela. Oso ondo, jada **5 bizitza** dituzue.
- b) Gerta daiteke zer edo zer konpondu, berriztatu, instalatu... behar izatea.

Kasu horretan, udalak gutun bat bidaliko dizue, **eta beste bat lokalaren jabeari**, azaltzeko zein diren egin beharreko obrak edo dena delakoak, eta zein epetan egin behar diren.

Obrak edo dena delakoa egin eta gero, lokalaren jabeak, edo zuek zeuok, udalari horren berri eman beharko diozue, jakinaren gainean egon dadin. Udalak berriro ikuskatuko du lokala eta, dena zuzen badago, oniritzia eman eta zuek ere **5 bizitza** izango dituzue.

- c) Azkenik, gerta liteke zuen lokalak konponbiderik ez izatea, penagarria delako. Orduan, segurtasun eta osasungarritasun baldintza egokiak betetzen dituen beste lokal bat bilatu beste erremediorik ez duzue. Udalak epe bat emango dizue lokala uzteko, eta hala egiten ez baduzue, "**klandestinitate**" egoerara pasako zarete. **Erne, ez duzue bizitzarik** eta, beraz, edozein kirtenkeria egiten baduzue, zuen lokala itxi bakarrik ez, gainera 300 euroko isun bat edo gehiago eror dakizueke.

2.- Arazoak ekiditeko modu bat da lonja bat alokatu baino lehenago "**Gazte-lonjen Udal Erregistroan**" **galdetzea** ea badagoen lonjaren bat eskuragarri (erregistroa heltzeko modua, posta elektronikoa, helbidea). Erregistro horretako lonjek behar diren gutxieneko baldintzak betetzen dituzte, eta, beraz, lonja horietako bat alokatzen baduzue, hasieratik **5 bizitza** ziurtatuko dituzue.

6. artikulua.- Gazte-lonjak bete behar dituen gutxieneko baldintzak.

Hemen kontua apur bat zailtzen da. Zerbait ulertzen ez baduzue, onena izango da obrez eta eraikuntzaz, igeltserotzaz, iturgintzaz... dakien norbaiti galdetzea.

- a) Argia: lokalak instalazio elektriko egokia izan behar du, instalazio ofizialaren ziurtagiria duena.
- b) Ura: gutxienez ur-hartune bat behar da, kontagailu indibiduala duena, pertsonen higiena eta ur-kontsumoa ahalbidetzeko.
- c) Bainugela: gutxienez komun bat izan behar da, konketa eta komuna dituena.
- d) Su-itxalgailua: gutxienez su-itxalgailu bat izan behar du, 21A-113 B eraginkortasunekoak, gutxienez, baina lokalaren arabera besteren bat jartzea ere eska liteke. Su-itxalgailuek eskura egon behar dute eta mantentze-kontratua indarrean izan.
- e) Larrialdi-argia: larrialdiko argi bat izan beharko da irteerako atearen goialdean (lokalaren tamainaren arabera beste bat eska liteke).
- f) Forjatua eta lokaleko sabaia: zuen lokalaren eta ondoko lokalen artean ezin daiteke egon inolako zulorik, artekarik edo irekidurarik.

Sabaia izan daiteke forjatua bera edota sabai faltsua. Hala ere, sabaitik doazen beherako hodiak agerian badaude (euri-uretakoak, komunetakoak...), edota gas-instalazioak, elektrikoak, etab., derrigor sabai faltsua jarri beharko da, hodi eta instalazio horiek suteetatik babesteko.

Soluzio bat ala bestea aukeratzen dela ere, suteen eta zaraten kontrako babes egokia bermatu behar zaie goiko pisuei. Horretarako, honako neurriok hartu beharko dira:

- Forjatua agerian uzten bada, kea edo gasak forjatutik gora pasako ez direla bermatzeko, bere azpiko aldea mortero zarpiatuz estalirik egon beharko du, edo proiektatzen den "haitz-artilez", poliuretanoz, bermikulitaz, perlitaz edo merkatuan den beste antzeko produkturen batez estalirik.
- Forjatua sabai faltsuz estaltzen bada, sabai faltsu hori suaren kontrako materialekin egina eta instalatua egon beharko da.

Bestalde, gela edo zulo desberdinen arteko babes/sektorizazio hori lortzearren, hodi bertikal guztiek (shunt hodiak, aireberritzeko patioak, etab.) itxitura egokiak izan beharko dituzte.

- g) Gasa: lonjatik pasatzen diren gas-tutuek aurreko pasartean azaldu den moduan babesturik joan beharko dute.
- h) Sarrerako atea: lokalek zuzeneko irteera izan behar dute kalera, eta ezin izango dute sarbidea portaletik izan. Sarrerako atea irekitzeko mekanismoa erraz erabiltzekoa izango da (eskulekua duena, izuaren kontrako barra, etab.); ez dira onartzen ate-ertzean jarritako itxiturak edo antzekoak. Irteera-atea igarotzeko moduan mantendu beharko da beti, hau da, lokal barnean daudenak giltza erabili beharrik gabe irteteko moduan.
- i) Lokal horietan ezin da sukalderik erabili. Hala ere, office bat jar daiteke, hozgailua, lanerako mostradorea, harraska eta mikrouhin labea dituenak.
- j) Aireztapena: lokalak aireztapen egokia izan behar du, nahiz naturala (leihoak), nahiz artifiziala (erauzgailu, haizagailu edo bestelako tresna mekanikoren baten bitartez).
- k) Edukiera: edukiera da lokal batean aldi berean egon daitezkeen pertsonen gehieneko kopurua. Gazte-lonjen edukiera izango da pertsona 1 lokalaren azaleraren 2 m²ko.

7. artikulua.- Zer egin daiteke eta zer ez gazte-lonja batean?

1.- Lonja batean **BAI** egin daitezkeen gauzak: egon, berriketan aritu, jolastu, mahai-jokoetan aritu, kontsolan jolastu, alferkerian egon, telebista ikusi, bolumen normal batean musika entzun, eseri, etzan, pixa egin, libratu, aurpegia garbitu, hortzak garbitu, mikrouhin-labean zerbait berotu, irratia entzun, barre egin, negar egitea, neskatan egin, mutiletan egin, errespetatu, adarra jo, eta horiek bezalako beste hainbat eta hainbat gauza.

2.- Gazte-lonjan egin **EZIN** diren gauzak:

- Ezin da lokalean bizi ez eta bertan gau osoa eman ere.
- Inongo jarduerarik ezin da egin dirua irabazteko asmoz.
- Inoiz ezin da lokalean elkarrekin egon edukierak baimentzen duen baino pertsona kopuru handiagoa.
- Ezin da surik egin.
- Ezin da sukaldean aritu (soilik mikrouhin-labe batean berotu).
- Ezin da inola ere likido sukoirik pilatu (butano botilak, gasolina...) eta material erregaiak biltzea saihestu behar da (egunkariak, aldizkariak, behar ez diren altzariak...).
- Zaratari dagokionez: auzokideak molesta ditzakeen algararik ezin da atera.
 - o Egunean zehar: 9:00ak eta 22:00ak bitartean, telebista edo musika-ekipoa izanez gero, bozgorailuek ezin dute igorri 75 dB-A baino gehiagoko soinu-mailarik. Beharrezkoa bada, udalak potentzia-mugatzaileak jartzeko agindu dezake.
 - o Gauez: 22:00ak eta 9:00ak bitartean ezin da atera 40 dB-A baino gehiagoko inongo zaratarik, hau da, gutxi gorabehera elkarrizketa arrunt baten edo bolumen normal batean jarritako telebistaren zarata.
- Aisialdi-jarduerak eta bilkurak lokalaren barruan egin behar dira, alegia, ezin dira lokaletik kanpo (bide publikoan nahiz espazio komunetan) aulkiak, mahaiak edo bestelako altzariak jarri, ezta bizikletak giltzarrapoz lotu euskarri berezietatik kanpo.
- Zaborrik ezin da metatu ez lokalaren barruan, ez kanpoaldean, eta lokala baldintza higieniko egokietan eduki behar da, bai barrutik, bai kanpoaldetik.

3.- Gazte-lonjan egin beharko EZ ZENITUZKETEN gauzak: sen onak agintzen dituenak. Joka ezazue zentzuz eta arduraz. Informazio gehiago nahi baduzue, edo edozein zalantza baduzue, Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzura jo dezakezue (helbidea, posta elektronikoa).

8. artikulua.- Lokalaren jabearentzat: erantzukizun zibileko aseguru

Lokalaren jabeak erantzukizun zibileko aseguru bat izenpetu beharko du, lokaleko erabiltzaileak eta beren ondasunak babestuko dituen, baita hirugarrenak ere, lokalean gerta litekeen edozein istripuren aurrean. Aseguru horrek gutxienez 100.000 euroko estaldura izan behar du.

9. artikulua.- "Kirtenkeriak"

Kirtenkeriak dira joko-arau hauek urratzen dituzten jokaerak. Badira kirtenkeria "txikiak" eta "handiak".

1.- Kirtenkeria txikiak dira:

Joko-arau hauetako edozein ez betetzea, beti ere jarduera horrekin pertsoneri edo beren ondasunei arrisku edo kalte larri edo oso larririk sortzen ez bazaie (kirtenkeria gehien-gehienak mota honetakoak dira).

Egiten duzuen "kirtenkeria txiki" bakoitzagatik **2 bizitza** galduko dituzue.

2.- Kirtenkeria handia:

Gazte-lonja bat edukitzea inongo bizitzarik izan gabe ("lonja klandestino") eta norbaitek salaketa jartzea kirtenkeria txiki bat egiteagatik.

Halakoetan, udalak, bai ala bai, 300 euroko isuna jarriko dizue, eta 15 eguneko epea emango "aurretiatzko komunikazioa" aurkez dezazuen. Aurretiatzko komunikazio hori epe barruan aurkezten ez baduzue, udalak zuen lonja berehala ixteko agindua emango du.¹

10. artikulua.- Nor da kirtenkerien erantzule?

Kirtenkeria txikiak: horiek "bizitzak" galtzea soilik dakartenez, erantzukizuna talde guztiarena izango da, hau da, "gazte-lonja guztiarena", kirtenkeria egin duen pertsona jakina nor izan den kontuan izan gabe.

Kirtenkeria handia: kasu horietan, diruzko **isuna** ordaindu beharko dute kirtenkeria egin den unean identifikatu diren pertsona zehatzek (edo, adin txikikoak badira, haien gurasoek). Hala ere, bai "aurretiatzko

¹ Artikulu honetan jasotzen denaz gain, arau-hausteei eta zigorrei dagokienez aplikagarri da 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskadiko Ingurumena Babesteari buruzkoa.

Hemen jasotzen diren "kirtenkeriak" legearen "arau-hauste arinen" baliokide dira.

Oso nekez gerta liteke, baina, baldin urrapen larri edo oso larria egingo bazenute, hau da, pertsoneri edo beren ondasunei arrisku edo kalte larri edo oso larririk sortzen diena, orduan zuzenean 3/1998 Legea aplikatuko litzateke.

komunikazioa" aurkezteko epea, baita **ixteko agindua** ere, talde guztiari zuzenduta egongo dira.

11. artikulua.- Prozedura zigortzailea

Kirtenkeriarik eginez gero, udalak zigorra jartzeko jarraitu behar duen prozedura 3/1998 Legean, Euskadiko Ingurumena Babesteari buruzkoan, dago jasota.

Prozedura horretan zehar, zuen burua defendatzeko aukera izango duzue, alegazioak, probak, errekurtsioak eta abar aurkeztuz.

Egoera horretan egokituz gero, eta ez badakizue zer egin, onena duzue Sindikoarengana —Herritarren Defendatzailearengana— jotzea (ikus 13. artikulua).

12. artikulua.- Preskripzioa.

Kirtenkeria egin zenetik denbora-tarte jakin bat igarotzen bada udalak dossier zigortzailea abiarazi duela jakinarazi aurretik, orduan jada ezingo dizue zigorrik jarri. Denbora-tarte horri "preskripzioa" esaten zaio.

Joko-arau hauetako kirtenkeriek urtebeteko epean preskribatzen dute.

Era berean, isun bat jarri dizuetela jakinarazten dizuetenetik udalak isun hori kobratzeko prozedura martxan jarri arte ("premiamendu-prozedura" deitzen zaio horri) **urtebete** pasatzen bada, orduan zigorrak preskribatu egiten du.

13. artikulua.- Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen laguntza

Edozein arazo baduzue udalarekin, jabearekin edota bizilagunekin, lonja bat irekitzekotan bazaude eta nondik hasi ez badakizue, araei buruzko edozein zalantza baduzue, kirtenkeriaren bat egiteagatik dosierra ireki badizute, udalaren edo beste edozein erakunderen erabakiren bat jakinarazi badizute, edota udalari egin nahi diozuen edozein kexa, iradokizun, erreklamazio... baduzue, onena duzue Sindiko edo Herritarren Defendatzailearengana jotzea.

Zerbitzu inpartziala, independentea eta doakoa da Sindikoa, eta hainbat gauza egin ditzake zuen alde: aholkuak eman, orientabideak, administrazioari zuzendutako idatziak egiten lagundu, bizilagunekin edo udalarekin bitartekari lana egin..., eta, gainera, udalari gomenda diezaioke zuen kexa, erreklamazio, iradokizunak eta abar kontuan izateko.

Hurbildu zaitetze lasai-lasai, atseginez egingo dizuete arreta, eta ahalik eta irtenbiderik onena eskaintzen saiatuko dira.²

14. artikulua.- Bizitza berriak nola irabazi (“bonus play”)

Esan dugunez, bizitza guztiak galduz gero, utzi egin beharko duzue lonja, eta zuen jarduerarekin jarraituz gero, 300 euroko isuna etor dakizueke, lokala ixteaz gain.

Hala ere, badira zenbait modu emaitza hori saihesteko edo lehendik dituzuen bizitzei beste batzuk gehitzeko. Hona hemen aukerak:

- Gutxienez lonjako taldea eratzen duzuen bost pertsona udalak antolaturiko lonjen segurtasun eta mantenuari buruzko hitzaldi batera joatea. **Bizitza 1.**
- Zuen eraikineko bizilagunekin bildu eta “**bizikidetasun-akordio**” bat adostea. Horretarako, Sindiko-Herritarren Defendatzailearen bitartekotza eska dezakezue. **3 bizitza.**
- Bizilagunen komunitateko espazioak mantendu eta onik zaintzeko lanak egitea, haren baimenarekin eta oniritziarekin. **Bizitza 1.**
- Mutilen eta nesken arteko berdintasun plan bat lantzea, helburu eta konpromiso batzuk jarritz, gero zuen lonjan aplikatzeko. Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuak laguntza emango dizue, eta zuen planari oniritzia eman beharko dio. **3 bizitza.**
- Berdintasuna, integrazioa, elkarrekiko errespetua eta pertsona guztien arteko bizikidetasuna sustatzeko helburua duten lantegiak, jardunaldiak, jarduerak... antolatzea. **Bizitza 1**
- Gutxienez lonja osatzen duten pertsonen erdia udalak sexu seguruaren gainean edo droga-kontsumoaren gainean antolatutako hitzaldi batera joatea. **2 bizitza**
- Bai zeuok, edo bai lokaleko jabeak, XX dB-A-ko isolamendu akustikoa jartzea lokalari. **10 bizitza.**

15. artikulua.- Jardueraren amaiera.

² Sindikoaren Bulegoarekin harremanetan jartzeko:
Helbidea: San Antonio kalea, 10 - behea.
Tel.: 945162690
<http://www.vitoria-gasteiz.org/sindikoa>
e-posta: sindikoa@vitoria-gasteiz.org

Edozein arrazoi dela ere lokal bat uzten duzuelarik, hilabeteko epean jakinarazi beharko diozue udalari lokala hustu egin dela, zeuok edo lokalaren jabeak.

Udalari lokala hustu dela inork jakinarazi ez eta beste inork hura gazte-lonja gisa erabiltzen badu, kirtenkeria handiari dagokion isuna jarri ahal izango da, batere bizitzarik ez eta.

16. artikulua.- Gazte Lonjen Erregistroa.

Gasteizko Udalak Gazte Lonjen Erregistroa sortuko du, eta bertan aurretiazko komunikazioetan jasotzen diren datuak bilduko, baita lokal hori erabiltzen duen gazte-taldeak duen bizitza kopurua ere.

Erregistro horretan jasotzen diren lokalek joko-arau hauetako gutxieneko baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Erregistroa publikoa izango da, eta gazte-lonja bat ireki nahi baina lokal egokirik ez duten guztien esku egongo da.

Xedapen iragankorra: Gaur egun irekita dauden eta gazteen aisialdirako lokal moduan funtzionatzen duten lonjek, joko-arau hauek argitaratzen direnetik sei hilabeteko epea izango dute "aurretiazko komunikazioa" aurkezteko. Bestela, "lonja klandestino" izatera pasako dira.